

HUNTSMAN ADVANCED MATERIALS S.L.

Arostegui etorbidea z.g., 31,009 Iruña



Huntsman Advanced Materials Spain SL establezimendua (Arostegui etorbidea z.g., 31,009 Iruña) irailaren 21eko 840/2015 Errege Dekretuaren xedepenei lotuta dago (horren bidez, substantzia arriskutsuekin zerikusia duten istripu larrien berezko arriskuak kontrolatzeko neurriak onartzen dira) BEHE MAILAN, eta 7. artikuluan adierazitako jakinarazpena egin dio Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzuari, artikuluko 1. apartatuan ezarritako edukiarekin.

Establezimenduaren jarduera

Gai kimikoak fabrikatzea, oro har.

Azken bisitaren eguna.

2021eko otsailaren 18a, osteguna

Balizko istripu larriak eta sor ditzaketen eraginak.

Huntsman Advanced Materials Spain SL enpresaren ekoizpen-instalazioetan substantzia toxikoak, sukoiak eta ingurumenerako kaltegarriak daude. Establezimenduaren kanpoaldean eragina izanen lukeen istripu larri baten kasurik kaltegarrienak tionilo kloruroa biltegitatzeko andalaren akats katastrofikoak eta boro trifluoruroaren sakabanatze toxikoa dira. Eragin ditzaketen kalterik nabarmenenak hauek dira; PERTSONAK. - Heriotza, arnastuz gero, eta larruzalean erredua larriak, eta begietako lesio larriak, arnasbideetako narritadurarekin. INGURUMENA. - Airearen, lurzoruaireneko edo uraren kutsadurak sortutako kalteak.

Kontrolerako hartutako neurriak.

Instalazioan honako neurri hauek hartu dira:

- Suteei aurre egiteko kontrol- eta arintze-sistemak.- Sute-ahokak, ur-harguneak, su-itzalgailuak eta ihintzagailuak
- Detekzio eta alarma sistemak.- detektagailuak, alarma-sakagailuak, gelditze-sakagailuak, sirenak
- Ihes-puntu estrategikoetan kokatutako detektagailu elektrokimiko erredundanteak eta independenteak.
- Kontrol-sistema automatizatutako dituzten prozesuak
- SO₂ detektagailu elektrokimikoak ihes-puntu estrategikoetan, larrialdiko gas-garbigailuko haizagailuaren konexio automatikoa dutenak
- Presio bidezko alarmak

Instalazioetako substantzia arriskutsuak

Tionilo kloruroa	H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan.
	H302	Hilgarria larruzala ukituz gero.
	H332	Kaltegarria arnastuz gero
Fenola	H301	Toxikoa irentsiz gero
	H311	Toxikoa larruzala ukituz gero
	H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan
	H331	Toxikoa arnastuz gero
Hidrazina	H226	Likido eta lurrin oso sukoiak
	H301	Toxikoa irentsiz gero
	H311	Toxikoa larruzala ukituz gero
	H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan.
Amoniakoa/NH ₃	H221	Gas sukoiak
	H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan.
	H331	Toxikoa arnastuz gero
	H400	Oso toxikoa organismo urtarrentzat
Boro trifluoruroa	H314	Erredura larriak larruzalean eta lesio larriak begietan.
	H330	Hilgarria arnastuz gero
Sufre dióxidoa	H331	Toxikoa arnastuz gero

Inguruko herritarrei/jardueri abisatzeko modua

Lantegian istripu larriren bat eragin dezakeen ezbeharren bat gertatuz gero, inguruko enpresei abisatu eta jakinaraziko zaie sirena akustikoaren bidez, polizia-autoetako megafoniaren bidez, irrati eta komunikabideen bidez, bai eta telefonoz ere inguruko instalazioei, hartu beharreko neurrien berri emateko

Nola jokatu istripu larriak izanez gero.

Industrialariak neurri egokiak hartu behar ditu, eta 112 zenbakira deitu, istripuaren ondorioak ahalik eta txikiak izan daitezten.

Istripu larriaren izaeraren arabera neurri hauek hartuko dira: Konfinamendua edo ebakuazioa/urruntzeta.

Konfinamendurako eta norberaren babeserako jarraibideak

- Kalean izanez gero, babes itzazu arnasbideak zapi batekin.
- Itxi itzazu atea eta leihoak, jaitsi pertsianak eta ahal izanez gero haietatik urrundu.
- Behar izanez gero, jar itzazu zapi hezeak zirrikietuan.
- Ez erabili aireztatze gailuak.
- Ekidin itzazu eraikinetako behealdeak, hala nola sotoak edo garajeak.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta gomendio eta jarraibideei jarraitu

Urruntzeko eta babesteko jarraibideak

- Bidean, babes itzazu arnasbideak zapi edo trapuekin eta bilatu babesleku bat.
- Behin helmugan, eraikin edo lokal baten barrualdera sartu zaitez eta itxi leihoak eta atea.
- Ez erabili telefonoa behar-beharrezkoa ez bada.
- Tokiko irratiei entzun eta agintarietara helarazten dituzten gomendio eta jarraibideei jarraitu.

Ebakuaziorako jarraibideak

- Larrialdiaren arabera, gertuen dauden etxebizitzak ebakutzera erabaki daitezke
- GASEko edo SOS 112ko buruak ebakuazio-bideak eta ordutegiak jakinaraziko ditu.

Informazio gehiago lortzeko

Babes Zibileko eta Larrialdietako Zerbitzua. Agoitz kalea 35 bis. Tel.: 848427171 proteccioncivil@navarra.es

<http://www.proteccioncivil.es/riesgos/quimicos/presentacion>